

HAURREN HORTZAK ZAINZEKO PROGRAMA

PADI - 2023

Euskadiko 7 eta 15 urte bitarteko Haurren Hartzak Zaintzeko Programaren (PADI) garapenari buruzko urteko txostena



AURKIBIDEA

	Orria
SARRERA	2
37/2023 DEKRETUA, Euskadiko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzkoa	3
2023KO EKITALDIKO EMAITZAK	
1. Erabilera	5
2. Maiztasuna	9
3. Hortz-asistentzia	11
4. Fakturazioa	15
HAURREN HORTZEN OSASUNA EAE-N	
Azterlan epidemiologikoak (1988 / 1998 / 2008 / 2018 / 2023)	16
EZTABAIDA	22
ONDORIOAK	23
I. ERANSKINA	
PADiren erabilera lurralde historikoaren, adinaren eta sexuaren arabera – 2023	24
II. ERANSKINA	
PADiren erabilera orokorra, udalerrrika	27


SARRERA

Joan den mendeko laurogeiko hamarkadaren amaieran hasitako Eusko Jaurlaritzaren hortzen osasuneko politikak haurren hortzak zaintzeko sistema bat sortzea jaso zuen, haien behin betiko hortzeria erupzioaren eta heldutasunaren adinetan beharrezko zaintzak jasotzen dituela bermatzeko, txantxarren prebalentzia murrizteko eta heldu gisa hortzen osasun eta osasun orokor hobea izateko.

EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko 118/1990 Dekretua argitaratzeak haren funtzio estrategikoa azpimarratu zuen, eta PADI oinarritzko hortzak zaintzeko sistema unibertsal eta kalitatezko zatik jo zuen. Sistema horrek hortzen arreta egokia bermatzen die urtero EAEn bizi diren 7 eta 15 urte bitarteko haur guztiei. Osasun Sailak hartzen du hura finantzatzeko ardura, eta dentista ugariz hornituta dago, hala Osakidetzako dentista fakultatiboak nola, hitzarmen bidez, sektore pribatukoak.

2023ko ekitaldian PADIk 34 urte bete zituen. 1990etik aurrera, eta ondoz ondoko bederatzik ekitalditan zehar, PADIk ekitaldian 7 urte betetzen zituen kohortea sartu zuen, eta sisteman mantendu zituen aurrez barne hartutako biztanleak; hala, 1998an, 7-15 urteko xede-biztanleria osoak bermatuta zuen dekretuan aurreikusitako hortzen asistentzia. 1. irudiak grafikoki erakusten du zenbat haur artatu diren ezarpen inkrementalaren alditik 2023ko ekitaldira arte.

1. irudia: PADIren ezarpen inkrementala eta garapena, 1990-2023.



Aldaketa demografikoez zehazten dute ondorengo ekitaldietan PADIra eskubidea duten 7-15 urteko haurren kopurua. 1. irudiak goranzko joera erakusten du, 2005ean hasi eta 2017ra arte jarraitu duena, 7-15 urteko 190.000 haur inguruan egonkortuz. Artatutako herritarrei dagokienez, kopururik handiena 2018-2019an lortu zen (130.000 haur inguru). 2020tik aurrera 120.000ra jaitsi zen, gaur egunera arte.

EAEn bizi diren 7-15 urteko haur eta gazteen multzoa 193.543 lagunera iritsi zen 2023an: 99.469 mutil eta 94.074 neska. (EUSTAT: Euskal Aeko biztanleria, jaiotza-urtearen arabera. 2023ko urtarilla)

EUSKADIKO 7-15 URTEKO BIZTANLEEN AHO-HORTZEN OSASUNAREN ARLOKO PRESTAZIO SANITARIOARI BURUZKO DEKRETU BERRIA

2023ko maiatzaren 5ean, EHAAn **martxoaren 21eko 37/2023 Dekretua** argitaratu zen, **Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzkoa**. Dekretu horretan araututako prestazio sanitarioa Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren (PADI) bidez gauzatzen da. Aurreko dekretuan ezarritako prestazioei eusten die, eta, aldi berean, traumatismoagatiko, malformazioagatiko edo txantxar-arrisku handiko egoera bereziengatiko egintza bereziak eguneratzen ditu.

Bestalde, 37/2023 Dekretu berriak, PADIren prestazioak arautzen dituenak, programari atxikitzeko sistema errazten die aho-hortzen asistentzia emateko Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritu nahi duten profesional eta erakundeei, edozein profesionalak, pertsona fisiko edo juridikok edozein unetan eska dezan prestazioak emateko gaitzea. Era berean, familiei aukera ematen die osasun-txartel indibiduala erakutsiz gaitutako edozein hortz-konsulta edo -klinikatan sartzeko, onarpen-taloia jasotzeko zailtasunak daudenean.

PADIren dekretu berria 2023ko maiatzaren 15ean jarri zen indarrean; hala ere, PADIren asistentzia-koadroan sartzea erabaki zuten profesionalen eta kontsulten gaikuntza ez zen 2023ko uztailaren 15era arte gauzatu. Beraz, bi hilabetekoaldi iragankorra egon zen PADIn parte hartu nahi zuten fakultatibo odontologoek eta hortz-klinikek gaitzeko administrazio-izapidea egin zezaten. Bestalde, Osakidetzako Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioak asistentzia-jarduera erregistratzeko eta monitorizatzeko beharrezkoak ziren egokitzapen informatikoak egin zituen, dekretu berriari xedatutakoa betetzeko.

Trantsizio-aldi horretan, aurreko dekretuaren (48/1990) kontratuaren arabera itunduta zeuden klinikek herritarrei arreta ematen jarraitzeko gaitasunari eutsi zioten, baina, hala ere, aipatutako egokitzapen-ahaleginak nolabaiteko eragina izan du bai gaitutako koadro fakultatiboaren egonkortasunean, bai es-taldura globalean eta 2023ko ekitaldi osoan erregistratutako jardueran.

PADIren baliabide asistentziala:


37/2023 Dekretu berria indarrean jarri ondoren, eta 2023ko abenduaren 31n, honako hau zen hortzak zaintzeko zentro eta profesional itunduen kopuruaren hasierako egoera:

- Osasun Sailak gaitutako 680 dentista, 648 hortz-klinikatan banatuta.
- Osakidetzako 22 dentista, 25 osasun-zentrotan banatuta.
- PADI kontsultak dituzten 91 udalerrri (EAEko 251 udalerrien % 36).

Aurreko ekitaldian (2022) itundutako klinika eta profesionalen datuak 2023ko abenduan gaitutako klinika eta dentistekin alderatuz gero, gaitutako dentistak % 28 murriztu dira. Era berean, kontsulten kopurua % 17 jaitsi da (942 dentista eta 779 hortz-klinika 2022an).

PADI programan parte hartu nahi duten profesional eta enpresentzat irekitako gaikuntza-prozedurak programari edozein unetan atxikitzeko aukera ematen duenez, zifra horiek etengabe aldatzen dira, eta espero da 2024aren amaieran zifrak ekitaldiaren hasieran baino handiagoak izatea. (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/ad42aRegPADIWar/centros/consultaClinica>).

2. irudia: PADlren administrazio-prozesuak.



Osakidetzako Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioa 1990ean diseinatu zen, eta etengabe erabiltzen eta optimizatzen ari diren administrazio-prozesuak kudeatzen ditu.

Haurrak artatzeko protokolo klinikoak eta itundutako dentistek emandako asistentzia ordaintzeko erabiltako kapitazio bidezko ordainketa-sistema eraginkorrak izan dira urte hauetan zaintza egokiak sustatzeko.


Emandako asistentziaren ondorioz, prebentzio-orientazioarekin eta beharrezko tratamendu konpontzaileak aplikatuta, gure haurren eta gazteen hortzen osasuna nabarmen hobetu da. 2023ko azken azterlan epidemiologikoak erakusten duenez, 14 urteko haurren % 67k ez du txantxarrik izan; adin horretako txantxar-kopuruaren batez bestekoa 0,78 da. Adin horretan txantxarrik jotako hortz guztien % 79 tratatuta daude.

Nahiz eta PADl osasun-erabiltzaileak onak lortu –aurreko urteetan uraren fluorazio-eskemak eta hortzak garbitzeko ohituraren hobekuntza orokorrak nabarmen lagundu dute horretan–, ez dugu ahaztu behar 2023ko azterlan horrek ere adierazten duela txantxar-lesioen 10 kasutik 3, 12 urterekin, eta 10 lesiotik 2, 14 urterekin, tratamendu leheneratzaileak jaso gabe daudela.

2023KO EKITALDIKO EMAITZAK.

I. Erabilera.

3. irudia. Erabilera globala - PADI 2023



2023an, EAEn bizi ziren eta PADIrako eskubidea zuten 7-15 urteko biztanleak 193.543 izan ziren.

118.112 haur artatu ziren:

- 111.510, sektore pribatuko gaitutako kontsultetan.
- 6.602, Osakidetza kontsulta publikoetan.

Estaladura-tasa orokorra % 61ekoa izan zen:

- % 57,6 gaitutako kontsulta pribatuetara joan zen.
- % 3,4 Osakidetza kontsultetara joan zen.

Hamar haurretatik sei hortz-azterketara joan ziren 2023ko ekitaldian.

I. taula. 7-15 urteko biztanleriaren banaketa EAEn, adin-taldearen eta sexuaren arabera (2023)

Adina	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	Guztira	Kuota %
Mutilak	9.899	10.344	10.623	10.535	11.401	11.460	11.592	11.671	11.944	99.469	% 51,39
Neskak	9.513	9.782	10.187	9.957	10.486	11.042	11.180	10.735	11.192	94.074	% 48,61
Guztira	19.412	20.126	20.810	20.492	21.887	22.502	22.772	22.406	23.136	193.543	% 100,00

II. taula. PADIn artatutako biztanleriaren banaketa adin-taldearen eta sexuaren arabera - 2023

Adina	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	PADI	Kuota %
Mutilak	5.965	6.530	6.655	6.704	7.254	6.982	7.019	6.859	6.661	60.629	% 31,33
Neskak	5.756	6.220	6.340	6.397	6.696	6.704	6.858	6.275	6.237	57.483	% 29,70
Guztira	11.721	12.750	12.995	13.101	13.950	13.686	13.877	13.134	12.898	118.112	% 61,03

III. taula. Artatutako biztanleria, sexuaren eta sare asistentzialaren arabera - 2023


	PADI HERRITARRAK		Arreta OSAKIDETZA		Arreta ITUNDUA		ARTATUTAKO HERRITARRAK		EZ DIRA BERTARATU	
Mutilak	99.469	% 100	3.469	% 3,49	57.160	% 57,47	60.629	% 60,95	38.840	% 39,05
Neskak	94.074	% 100	3.133	% 3,33	54.350	% 57,77	57.483	% 61,10	36.591	% 38,90
Guztira	193.543	% 100	6.602	% 3,41	111.510	% 57,62	118.112	% 61,03	75.431	% 38,97

IV. taula: Artatutako biztanleria osoaren bilakaera, ekitaldiaren eta sare asistentzialaren arabera - 2014 - 2023

Ekitaldia >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Osakidetza	8.271	8.474	8.330	7.959	7.853	7.627	5.457	5.984	6.104	6.602
Itundua	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844	116.904	114.315	111.510
Artatutakoak	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301	122.888	120.419	118.112
Artatu gabeak	60.634	61.678	63.272	65.462	59.753	61.042	71.529	69.280	68.941	75.431
Biztanleria	182.329	185.703	190.618	194.752	190.736	191.928	191.830	192.168	189.360	193.543

4. irudian eta V. taulan, PADlren 2023ko erabilera-ehunekoa (kuota) eta azken hamarkadan izan duen bilakaera erakusten dira, erabilitako sare asistentzialaren arabera (itundua edo publikoa). 2023an, 100 haurreko 58 sektore pribatuko gaitutako dentistek artatu zituzten, hiru Osakidetzako dentistek eta 39 ez ziren joan PADlren azterketara.

4. irudia: Artatutako biztanleria osoaren ehunekoaren bilakaera, sare asistentzialaren arabera 2014-2023



V. taula. Artatutako biztanleria osoaren ehunekoaren bilakaera, sare asistentzialaren arabera 2014-2023

Ekitaldia >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Osakidetza	% 5	% 5	% 5	% 4	% 4	% 4	% 3	% 3	% 3	% 3
Hitzartutakoak	% 62	% 62	% 62	% 62	% 65	% 64	% 60	% 61	% 61	% 58
Artatu gabeak	% 33	% 33	% 33	% 34	% 31	% 32	% 37	% 36	% 36	% 39
Estaldura	% 66,74	% 66,79	% 66,81	% 66,39	% 68,67	% 68,20	% 62,71	% 63,95	% 63,59	% 61,03

Programaren estaldurak urte hauetan izan duen bilakaerak egonkortasun-ildoak erakusten du, 2019ra arte % 66tik % 68ra bitarteko tartean mantentzeko joerarekin. 2020tik aurrera, estaldura jaitsi egin da, eta % 61etik % 64ra bitarteko tartean dago.


Hiru haurretatik bi hortzen azterketara joaten dira ekitaldi bakoitzean.

VI. taula. 2023an artatutako biztanleria, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera

ARABA	ARTATUTAKO BIZTANLERIA				ESTALDURA (%)		
	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA
MUTILAK	16.428	405	9.634	10.039	% 2,47	% 58,64	% 61,11
NESKAK	15.339	368	9.070	9.438	% 2,40	% 59,13	% 61,53
PADI	31.767	773	18.704	19.477	% 2,43	% 58,88	% 61,31

BIZKAIA	ARTATUTAKO BIZTANLERIA				ESTALDURA (%)		
	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA
MUTILAK	49.086	500	30.798	31.298	% 1,02	% 62,74	% 63,76
NESKAK	46.874	442	29.349	29.791	% 0,94	% 62,61	% 63,56
PADI	95.960	942	60.147	61.089	% 0,98	% 62,68	% 63,66

GIPUZKOA	ARTATUTAKO BIZTANLERIA				ESTALDURA (%)		
	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA
MUTILAK	33.955	2.564	16.728	19.292	% 7,55	% 49,27	% 56,82
NESKAK	31.861	2.323	15.931	18.254	% 7,29	% 50,00	% 57,29
PADI	65.816	4.887	32.659	37.546	% 7,43	% 49,62	% 57,05

5. irudia: PADren estalduraren bilakaera orokorra, lurralde historikoaren arabera (2014-2023)

VII. taula. PADren estalduraren ehunekoak, lurralde historikoaren arabera (2014-2023)

Ekitaldia >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
ARABA	% 66,71	% 66,57	% 66,18	% 65,73	% 69,00	% 68,35	% 62,18	% 63,88	% 63,85	% 61,31
GIPUZKOA	% 62,36	% 62,01	% 63,09	% 63,23	% 64,59	% 64,46	% 58,45	% 59,62	% 60,42	% 57,05
BIZKAIA	% 69,73	% 70,12	% 69,54	% 68,75	% 71,41	% 70,75	% 65,84	% 66,95	% 65,68	% 63,66
EAE	% 66,74	% 66,79	% 66,81	% 66,39	% 68,67	% 68,20	% 62,71	% 63,95	% 63,59	% 61,03

2023an, hiru lurraldeetako estaldura globala jaitsi da, 2 eta 3 puntu artean aurreko ekitaldiko batez besteko asistentziarekin alderatuz gero. Bizkaia Arabaren eta Gipuzkoaren gainetik mantendu da, 2 eta 6 puntu gainetik, hurrenez hurren.


VIII. eta IX. taulek PADren erabilera aurkezten dute Osakidetza Asistentzia Sanitaria egituratzen duten Zerbitzu Erakunde bakoitzean. Datuek sare asistentzial bakoitzaren erabilera jasotzen dute (Osakidetza eta gaitutako sektore pribatukoa).

VIII. taula: PADIn artatutako biztanleriaren banaketa ehunekotan, erakunde sanitario bakoitzeko hornidura-sarearen arabera (Osakidetza / Gaitutako klinika pribatuak) - 2023

ERAKUNDE SANITARIOA	OSAKIDETZA			ITUNDUA		
	PADI	MUTILA	NESKA	PADI	MUTILA	NESKA
DEBABARRENEKO ESla	% 22,56	% 12,11	% 10,45	% 77,44	% 39,51	% 37,93
BIDASOKO ESla	% 21,06	% 11,38	% 9,68	% 78,94	% 40,50	% 38,44
GOIERRI-UROLA GARAIKO ESla	% 16,74	% 8,93	% 7,81	% 83,26	% 42,59	% 40,67
TOLOSALDEKO ESla	% 13,81	% 7,57	% 6,23	% 86,19	% 44,44	% 41,76
DONOSTIALDEKO ESla	% 8,88	% 4,47	% 4,42	% 91,12	% 46,63	% 44,49
ARABAKO ERRIOXAKO ESla	% 6,41	% 2,62	% 3,79	% 93,59	% 45,19	% 48,40
DEBAGOIENENKO ESla	% 4,57	% 2,20	% 2,37	% 95,43	% 48,26	% 47,17
ARABAKO ESla	% 4,40	% 2,32	% 2,09	% 95,60	% 49,30	% 46,29
BARAKALDO-SESTAOKO ESla	% 2,63	% 1,52	% 1,11	% 97,37	% 50,23	% 47,14
BILBO-BASURTUKO ESla	% 1,79	% 0,89	% 0,90	% 98,21	% 49,93	% 48,27
BARRUALDE-GALDAKAOKO ESla	% 1,47	% 0,74	% 0,73	% 98,53	% 50,63	% 47,89
EZKERRALDE-ENKARTERRIKO ESla	% 0,89	% 0,52	% 0,37	% 99,11	% 50,77	% 48,35
URIBEKO ESla	% 0,49	% 0,27	% 0,21	% 99,51	% 51,15	% 48,36

IX. taula: PADIren erabilera globala 2023an erakunde sanitario bakoitzean

ERAKUNDE SANITARIOA	PADI	Artatu-tako biz-tanleria	OSAKIDETZA	Sare gaitua	Muti-lak	Neskak	% muti-lak	% neskak	Guztira (%)
DEBABARRENA	6526	4442	1002	3440	2293	2149	% 35,14	% 32,93	% 68,07
URIBE	20434	13515	66	13449	6950	6565	% 34,01	% 32,13	% 66,14
BARRUALDE	28188	18552	273	18279	9531	9019	% 33,81	% 32,00	% 65,81
BILBO-BASURTU	25297	16023	287	15736	8144	7880	% 32,19	% 31,15	% 63,34
ARABA	27151	16919	745	16174	8733	8186	% 32,16	% 30,15	% 62,31
EZKERRALDE-ENKARTERRI	12844	7893	70	7823	4048	3845	% 31,52	% 29,94	% 61,45
BARAKALDO-SESTAO	10827	6398	168	6230	3311	3087	% 30,58	% 28,51	% 59,09
TOLOSALDEA	6606	3882	536	3346	2019	1863	% 30,56	% 28,20	% 58,76
DONOSTIALDEA	31324	17886	1588	16298	9139	8748	% 29,18	% 27,93	% 57,10
BIDASOA	6678	3699	779	2920	1919	1780	% 28,74	% 26,65	% 55,39
GOIERRI-UROLA GARAIA	10140	5520	924	4596	2844	2676	% 28,05	% 26,39	% 54,44
DEBAGOIENA	6105	3040	139	2901	1534	1506	% 25,13	% 24,67	% 49,80
ARABAKO ERRIOXA	1423	343	22	321	164	179	% 11,52	% 12,58	% 24,10
EAE	193.543	118.112	6.599	111.513	60.629	57.483	% 31,33	% 29,70	% 61,03


6. irudia. PADIren estaldura (Osakidetza eta itundua) erakunde sanitarioaren arabera - 2023


2023an, erakunde sanitario guztietan, hitzartutako asistentzia Osakidetzako baliabideekin eskainitako-aren gainetik egon zen. PADIren arretaren % 94,4 hitzartutako dentistek eman zuten. Osakidetzaren kontsultarik erabilienak Gipuzkoakoak dira, Debagoiena izan ezik. Bizkaiko eta Arabako hortz-kontsulta publikoek ez diete eremuko erabiltzaileen % 5i ere arreta ematen.

II. Maiztasuna.

Haurrek asistentziarako eskubidea duten adin tartean (7 eta 15 urte), honela sailkatzen da erabilera-eredua (maiztasuna): “**konstantea**”, PADI erabilgarri dagoen ekitaldi guztietan erabiltzea; “**nulua**” inoiz ez joatea; eta “**aldizkakoa**”, eskubidea duen bederatzi ekitaldietako batera edo batzuetara joatea, baina ez guztietara.

7. irudia. Erabilera orokor konstantea, aldizkakoa eta nulua adin-talde bakoitzaren arabera - 2023



Irteerako kohortean, 15 urtekoetan, % 24 PADIra joan zen bederatzi estaldura-ekitaldietako bakoitzean.

2023an, EAEko 15 urteko haurren % 92k gutxienez behin erabili du PADI programa 7 urtetatik aurrera.

Urteko batez besteko erabilera (erabilera konstantea gehi aldizkakoa) 6,3 ekitaldi izan zen 9 ekitaldi posibleen gainean (6,28 nesken kasuan eta 6,29 mutilen kasuan). X. taulan, PADIren estaldura osoko maiztasuna ageri da, 15 urtera arte metatua.

X. taula: Maiztasun metatua 15 urterekin (9 ekitaldi), sexuaren arabera - 2023

2023ko ekitaldia	BIZTANLERIA	KONSTANTEA	ALDIZKAKOA	NULUA
Neskak (15 urte)	11.192	2.640 (% 23,59)	7.651 (% 68,36)	901 (% 8,05)
Mutilak (15 urte)	11.944	2.875 (% 24,07)	8.173 (% 68,42)	896 (% 7,50)
PADIa, guztira (15 urte)	23.136	5.515 (% 23,84)	15.824 (% 68,40)	1.797 (% 7,77)

XI. taula: PADIren erabiltzaileak 2023an eta haien maiztasun-datuak.

Adina	BIZTANLERIA	KONSTANTEA	ALDIZKAKOA	NULUA
15 urte	23.136	5.515	15.824	1.797
14 urte	22.406	5.943	14.705	1.758
13 urte	22.772	6.671	14.074	2.027
12 urte	22.502	6.906	13.355	2.241
11 urte	21.887	7.518	11.787	2.582
10 urte	20.492	7.485	10.153	2.854
9 urte	20.810	8.626	8.597	3.587
8 urte	20.126	9.653	5.705	4.768
7 urte	19.412	11.721	0	7.691

XII: taula: Kohorteen erabileraren bilakaera, 2014tik 2023ra.

Ejercicios >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Cohorte 1999 >	61,51									
Cohorte 2000 >	64,12	61,70								
Cohorte 2001 >	65,76	64,74	62,88							
Cohorte 2002 >	67,64	66,82	65,39	63,40						
Cohorte 2003 >	68,73	68,03	66,55	64,27	63,35					
Cohorte 2004 >	68,90	68,55	67,92	66,41	65,81	62,97				
Cohorte 2005 >	68,11	69,05	68,87	67,78	67,93	65,89	58,34			
Cohorte 2006 >	68,43	68,11	68,77	68,35	69,77	67,81	59,97	59,12		
Cohorte 2007 >	66,59	67,75	68,10	69,02	71,15	69,65	64,44	61,82	59,26	
Cohorte 2008 >		65,69	68,25	67,72	71,15	70,58	64,34	63,52	61,43	55,75
Cohorte 2009 >			64,11	64,70	70,50	70,21	64,30	64,85	63,28	58,62
Cohorte 2010 >				65,54	70,32	69,32	64,80	65,37	65,33	60,94
Cohorte 2011 >					67,75	69,55	63,87	65,41	65,25	60,82
Cohorte 2012 >						67,53	64,17	65,34	65,84	63,74
Cohorte 2013 >							61,92	65,40	65,12	63,93
Cohorte 2014 >								64,85	64,65	62,45
Cohorte 2015 >									62,34	63,35
Cohorte 2016 >										60,38
PADI >	66,17	66,74	66,79	66,81	66,39	68,67	68,20	62,71	63,95	61,03

XII. taulan kohorte bakoitzaren erabilera-ehunekoa deskribatzen da aztertutako epean, eta ikusten da nola sistemaren erabilera gutxitzen den adina gora doan heinean. 15 urterekin, programa 7 urterekin baino gutxiago erabiltzen da kasu guztietan.

PADI erabiltzeko joera handiena duen adin-tartea 10-11 urtekoa da; izan ere, adin hori hortzeria aldatzeko bigarren etaparen hasieratik hurbil dago. 12 urtetatik aurrera urteko berrikuspenera joateko joera zertxobait jaisten da.

2023an, 12-15 urte bitartekoen erabilera-ehunekoa artatutako biztanleria osoaren batez bestekoa baino txikiagoa izan da. (% 61,03)

Adin handiagoko kohortek PADI gutxiago erabiltzeak 12 eta 14 urterekin tratatu gabeko txantxarrak egotea azalduko luke, azterketa epidemiologikoetan ikusitakoaren arabera: Egindako azken azterlanak erakusten du lesionatutako 10 hortzetatik 3 leheneratu gabe daudela 12 urtetan (CAOD indize osoaren % 30). Hala ere, 14 urterekin tratatu gabeko txantxarren ehunekoa % 20,5era jaitsi da 2023an (*EAEko haurren aho-hortzetako osasunaren V. azterketa epidemiologikoa - 2023, 16-20. or.*).

III. Hortz-asistentzia.

PADlren protokolo klinikoetan dator behin-behineko hortzetan txantxarra izan duten haur guztiei hagin iraunkorretan fisura-ixtekoak edo zigilatzaileak jarri behar zaizkiela. Era berean, arrazoi mediko, biologiko edo sozialengatik arriskuan egon daitezkeen haurrei fisura-ixtekoak jarri behar zaizkie, azalera mastekatzailleetan txantxarra izatea prebenitzeko.

Emandako asistentzian sartzen dira, halaber, kaltetutako behin betiko hortzerian egin beharreko prozedura konpontzaileak. XIII. eta XIV. tauletan, asistentziaren bolumen globala eta 100 haurreko ordezkazten duen profila ageri dira.

A. Asistentziaren banaketa, sexuaren arabera

XIII. taulak asistentzia orokorra adierazten du, kapitazio edo taloi bidezko ordainketan sartutakoa.

XIII: taula: PADlren oinarrizko asistentzia orokorra 2023an. Sexuaren araberako banaketa

	Mutilak		Neskak		PADla, guztira	
	Tratamenduak	Profila	Tratamenduak	Profila	Tratamenduak	Profila
Berrikuspena	60.629	% 100	57.483	% 100	118.112	% 100
Zigilatzaileak	5.504	% 9,08	5.210	% 9,06	10.714	% 9,07
Garbiketak	7.372	% 12,16	6.112	% 10,63	13.484	% 11,42
Obturazioak	7.043	% 11,62	7.786	% 13,54	14.829	% 12,56
Ateratzeak	740	% 1,22	651	% 1,13	1391	% 1,18
Hortz mamiaren tratamendua	140	% 0,23	159	% 0,28	299	% 0,25

XIV. taulak traumatismoen edo malformazioen ondorioz behar den asistentzia gehigarria jasotzen du, eta hortz-ekintza bakoitzeko ordaintzen da.

XIV: taula: PADlren asistentzia gehigarria, 2023an. Sexuaren araberako banaketa.


	MUTILAK	%	NESKAK	%	PADla, guztira	%
Artatutako biztanleria, guztira	60.629	% 100	57.483	% 100	118.112	% 100
Asistentzia gehigarria duten biztanleak	709	% 1,17	490	% 0,85	1.199	% 1,02
Ekintza berezi kop.	1.100	% 100	731	% 100	1.831	% 100
Berreraikuntzak traumatismoagatik	939	% 85,36	627	% 85,77	1.566	% 85,53
Beste tratamendu berezi batzuk	161	% 14,64	104	% 14,23	265	% 14,47

Artatutako haurren % 1 inguruk asistentzia gehigarria behar izan du, hortzerian traumatismoak edo malformazioen bat izan duelako.

Asistentzia gehigarriaren zatirik handiena hautsitako hortzak berreraikitzeagatik izan da (% 85,5). Asistentzia bereziaren gainerako % 14,5a endodontziak, apikoformazioak, ferulizazioak, erauzketak, obturazioak aldi baterako hortzetan dagokion pieza iraunkorren agenesiagatik, edo koroa protesikoaren bidezko estaldurak dira.

B. Asistentzia orokorraren banaketa adin-taldeen arabera.

8. irudia: Emandako asistentzia orokorraren ehunekoak 100 haurreko, adin-talde bakoitzeko, 2023an




XV. taula. Oinarrizko asistentzia orokorra adinaren arabera 2023an

Adina >	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	PADI
Berrikuspenak	11.721	12.750	12.995	13.101	13.950	13.686	13.877	13.134	12.898	118.112
Zigilatzaileak	2.290	1.885	1.292	962	882	805	921	889	788	10.714
Obturazioak	746	1.009	1.120	1.263	1.521	1.659	2.125	2.315	3.071	14.829
Ateratzeak	116	137	155	217	197	194	165	129	81	1.391
Hortz mamiaren trat.	26	21	11	30	32	41	37	52	49	299

Kohorte bakoitzean emandako asistentzia orokorrak PADIren protokolo klinikoetan aurreikusitako ereduari jarraitzen dio, eta zigilatzaileak nagusitzen dira obturazioen gainetik haur gazteen taldean. Adinak aurrera egin ahala, zigilatze/obturazio erlazioa alderantzikatu egiten da. Era berean, erauzketak eta hortz-mamiaren tratamenduak edo endodontziak egiteko beharra oso maila baxuetan mantentzen da adin guztietan.

C. PADIko asistentziaren bilakaera

9. irudia: Emandako oinarrizko asistentziaren ehunekoaren bilakaera: 2014-2023



XVI. taula. Asistentzia orokorraren bilakaera 2014-2023

Ekitaldia >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
	121.69	124.02	127.34	129.29	130.98	130.88	120.30	122.88	120.41	118.11
Berrikuspenak	5	5	6	0	3	6	1	8	9	2
Zigilatzaileak	18.539	19.368	17.689	17.260	16.375	16.876	11.692	12.518	12.302	10.714
Obturazioak	20.185	20.210	20.590	19.999	20.220	19.865	15.434	16.696	15.705	14.829
Ateratzeak	995	1.227	1.302	1.367	1.371	1.302	1.105	1.205	1.242	1.391
Hortz mamiaren trat.										299
	299	372	460	366	355	330	213	452	362	

Ekitaldi bakoitzean emandako Asistentzia Orokorraren guztizko bolumenak eta profilak behera egin du 2014-2023 aldian; pitzaduren zigilatzeen aplikazioan nabarmen, eta apur bat obturazioen kasuan. Zigilatzaileen aplikazio globalak 1/3 egin du behera hamarkada batean, eta eskola-umeen % 9 izan da 2023ko ekitaldian.


XVII. taulak azken hamarkadan traumatismoen edo malformazioen ondorioz asistentzia gehigarria jaso duten biztanleen bilakaera erakusten du.

XVII: taula: Emandako asistentzia gehigarria izan duen biztanleriaren bilakaera (2014-2023)

Ekitaldia >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
	121.69	124.02	127.34	129.29	130.98	130.88	120.30	122.88	120.41	118.11
Artatutako biztanleria, gutzira	5	5	6	0	3	6	1	8	9	2
Tratamendu gehigarriarekin	1.664	1.636	1.663	1.654	1.572	1.558	1.005	1.170	1.269	1.119
Asistentzia gehigarriaren %	% 1,37	% 1,32	% 1,31	% 1,28	% 1,20	% 1,19	% 0,84	% 0,95	% 1,05	% 1,02

D. Asistentzia-profilak, horniduraren arabera (itundua / Osakidetza)

2023an, PADIn emandako asistentzia orokorraren profilak aurreko ekitaldietako bilakaerari jarraitzen dio, eta Osakidetza sarearen profilen eta itundutako kontsulten arteko aldea erakusten du.

10. irudia: Asistentzia orokorraren ehunekoaren konparazioa, sare asistentzialaren arabera (publikoa / itundua) 2023an



XVIII. taula: Oinarrizko asistentzia orokorra, sare asistentzialaren (Osakidetza / Itundua) arabera aplikatua

Datu globalak	Osakidetza		Itundua		PADI	
Berrikuspenak	6.602		111.510		118.112 (% 100)	
Zigilatzaileak	2.371	(% 36)	8.343	(% 7,5)	10.714	(% 9,07)
Obturazioak	2.331	(% 35)	12.498	(% 11,21)	14.829	(% 12,56)
Ateratzeak	225	(% 3,41)	1.166	(% 1,05)	1.391	(% 1,18)
Hortz mamiaren trat.	84	(% 1,27)	215	(% 0,19)	362	(% 0,25)

Bi sareetan, Osakidetzan eta hitzartuan, ematen den asistentziak oso profil diferenteak dituzte. Osakidetzan, zigilatzaileen ehunekoa itunpeko sarearena baino lau aldiz handiagoa da, eta obturazioen proportzioa itunpeko sarearena baino hiru aldiz handiagoa. Era berean, Osakidetza dentistek artatutako adingabeei erauzketa eta hortz-mamiaren tratamendu gehiago egin behar izan dizkiete, eta, hala, ikusten da sare publiko hori konplexutasun kliniko eta sozial handiagoko erabiltzaileek erabili dutela.

11. eta 12. irudietan eta XIX. eta XX. tauletan, hurrenez hurren, Osakidetza kontsulta publikoetan eta itundutako kliniketan emandako asistentzia orokorraren bilakaera ageri da.


11. irudia: Osakidetza emandako asistentzia orokorraren bilakaera. Portzentaje-kuota.



XIX. taula. PADI asistentzia OSAKIDETZaren sare publikoan, 2014-2023 aldia

Ekitaldia >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Berrikuspenak	8.271	8.474	8.330	7.959	7.853	7.627	5.457	5.984	6.104	6.602
Zigilatzaileak	3.270	3.760	2.755	3.431	2.741	2.479	1.353	1.612	2.258	2.371
Obturazioak	2.308	2.423	2.203	2.571	2.653	2.270	1.646	2.290	2.168	2.331
Ateratzeak	117	117	109	121	148	112	76	175	152	225
Hortz-mamiaren trat.	65	59	84	54	118	112	67	65	61	84

12. irudia: Itundutako kontsultetan emandako asistentzia orokorraren bilakaera. Portzentaje-kuota



XX. taula. PADI asistentzia itunpeko sarean, 2014-2023 aldia

Ekitaldia >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Berrikuspenak	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844	116.904	114.315	111.510
Zigilatzaileak	15.269	15.608	14.934	13.829	13.634	14.397	10.339	10.096	10.044	834
Obturazioak	17.877	17.787	18.387	17.428	17.567	17.595	13.788	14.406	13.547	12.498
Ateratzeak	878	1.110	1.193	1.246	1.223	1.190	1.029	1.030	1.090	1.166
Hortz-mamiaren trat.	234	313	376	312	237	218	146	387	301	215

IV. Fakturazioa

2023ko aurrekontu-ekitaldian, PADIrako **itundutako familiako dentistek 5.511.935 euro** fakturatu dizkiote Osasun Sailari (49,43 euro, batez beste, artatutako pertsona bakoitzeko).

Kopuru horretatik, 5.400.459 euro, % 98, sistemaren Asistentzia Orokorrerako egindako kapitazioen ordainak dira (hortzen azterketak, fisura-ixteak eta beharrezkotzat jotzen diren prebentzio-prozedurak, obturazioak, erauzketak eta behin betiko hortzetako pulpen tratamenduak), eta 111.476 euro, % 2, Asistentzia Gehigarriaren kontzeptupean doaz (ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen tratamenduak).

IX. taula: Asistentzia itunduaren kostuen bilakaera (eurotan) azken hamarkadan.

Ekitaldia >	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Asistentzia Orokorraren gastua	4.845.719	4.935.137	5.043.695	5.133.398	5.211.226	5.228.433	4.863.102	4.956.925	4.858.291	5.400.459
Asistentzia Gehigarriaren gastua	149.450	137.855	131.895	125.406	123.304	122.122	82.446	95.955	102.828	111.476
ITUNDUA, GUZTIRA	4.995.169	5.072.992	5.175.590	5.258.804	5.334.530	5.350.555	4.945.548	5.052.880	4.961.119	5.511.935
Artatutako biztanleria	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844	116.904	114.315	111.510
Kostua (€) pertsonako	44,04	43,90	43,49	43,61	43,32	43,41	43,06	43,22	43,40	49,43
Kapitazio bakoitzeko kostua, %	% 97,0	% 97,3	% 97,5	% 97,6	% 97,7	% 97,7	% 98,33	% 98,10	% 97,93	% 97,98
Kostu gehigarria, %	% 3,0	% 2,7	% 2,5	% 2,4	% 2,3	% 2,3	% 1,67	% 1,90	% 2,07	% 2,02

Profesional itunduek tarifa finko bat jasotzen dute ekitaldi bakoitzean artatutako haur bakoitzeko (urteko kapitazioa). Tarifa horren barruan hortzetako osasunaren egoeraren jarraipena sartzten da, bai eta

doako arreta ere asistentzia orokorrean deskribatutako prebentzio- eta leheneratze-prozeduretan. Tarifa horiek, oro har, itundutako profesional eta enpresek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari fakturatutako zenbatekoaren % 98 dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko 37/2023 Dekretu berria indarrean jarri zenetik, 2023ko maiatzaren 15etik aurrera eguneratu egin ziren profesional bakoitzak esleitutako pertsona bakoitzeko kobratzen dituen tarifak, urteko onarpen-taloiaren bidez (ordainketa kapitatioa). Horrela, Eusko Jaurlaritzak gaitutako klinika eta profesionalentzako ordainketa kapitatioaren kostu osoa 2023ko maiatzaren 15a baino lehen indarrean zeuden tarifak eta dekretu berriari dagozkionak aplikatzearen emaitza da:

X. taula. Tarifak, kapitazio bakoitzeko	2023/05/15a baino lehen 118/90 Dekretua	2023/05/15etik aurrera 37/2023 Dekretua
7-11 urteko haurra	39,88 € urteko taloi bakoitzeko	49,20 € urteko taloi bakoitzeko
12-15 urteko haurra	45,49 € urteko taloi bakoitzeko	54,07 € urteko taloi bakoitzeko

2007. urteaz geroztik, ordainketa bereizi bat ezarri zen adin handieneko kohorteentzat (12 eta 15 urte bitartekoak), kontuan hartuta patologia aurreratuenek eta/edo luzeenek lan-karga handiagoa dakartela eta haur handienen artean ohikoagoak direla.

Osakidetzan PADI programa artatzen duten **familiako dentisten** jarduerari egotz dakiokoen kostuari dagokionez, Osasun Sailari artatutako haur bakoitzeko tarifa berberak fakturatu izan balitzaizkio, zenbatekoa 323.971 eurokoa izango litzateke; 49,07 euro, batez beste, haur bakoitzeko.

Kopuru horretatik, 316.266 euro, % 97,6, sistemaren Asistentzia Orokorrerako egindako kapitazioen ordainak dira (hortzen azterketak, fisura-ixteak eta beharrezkotzat jotzen diren prebentzio-prozedurak, obturazioak, erauzketak eta behin betiko hortzetako pulpen tratamenduak). Gainerakoa, 7.705 euro, % 2,4, asistentzia gehigarriari dagokio, eta ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen ondorioz beharrezkoak izan ziren tratamenduak barne hartzen ditu.

V. HAURREN HORTZEN OSASUNA EUSKADIN

AZTERLAN EPIDEMIOLOGIKOAK (1988; 1998; 2008; 2018; 2023)

1988an, Eusko Jaurlaritzak, Osasun Sailaren bitartez, EAeko ikasleen aho-hortzetako osasunaren lehen azterlan epidemiologikoa egin zuen. Haurren hortzak zaintzeko programa (PADI) ezartzearen eta Euskadiko biztanleriaren zati handi baten edateko uretan fluorra sartzearen ondorioz, bigarren azterlan epidemiologiko bat egin zen 1998an. Zaintza epidemiologikoaren esparruan, Osasun Sailak hirugarren azterlan bat enkargatu zuen 2008an, eta laugarren bat 2018an. Laugarren azterlana egin zenetik, bi gauza garrantzitsu gertatu dira: Lehenik eta behin, 2022ko ekainean Aho-hortzetako Osasun Zerbitzuen Zorroa Handitzeko Plana onartu zen. Plan horrek, besteak beste, aldaketak ekarriko ditu haurren zerbitzu-zorroan, Estatuko autonomia-erkidego guztietan pixkanaka indarrean sartzan denean. Bigarrenik, etxeko kontsumorako uraren fluorazioa eten egin zen, gutxi gorabehera 2020tik aurrera.

